

Hitzaurrea



azko eta aurreko urteko Biltzar interesgarrietako aktak jasotzen zizuten bi ale bereziren ondoren, normaltasunera itzuli da Behinola bederatzigarren zenbaki honekin.

Aldizkariari hasiera emateko, «Hitz eta Pitz» bitxi bat dakarkigu; izan ere, Mariasun Landa elkarrizketarik gabeko elkarrizketatua dela esan genezake, eta ohiko galde-erantzunen ordeaz idazleak bere obrari buruzko artikulua bat eskaini digu, geure aldetik Landaren ibilbide literarioan zeharko beste batekin osatu duguna.

«Hitzontzi» sorkuntza atalean, berriz, Felipe Juaristiren ipuin bitxi bat aurkituko duzu, ahoskatze zaileko tituluarekin, aukeran. Ipuinak, Euskal Herrian kokatuta badago ere, urrutiko kontuak ekartzen ditu hizpidera, bai denboran bai distantzian.

Gutxitan bisitatzen gaituen atala dator gero: «Hitzordu». Galtzagorri Elkarteak antolatuta egin diren eta egiteko diren ekintzen berri ematen da bertan: Haur Liburuaren Egunaren aitzakian egindako marrazki lehiaketa, jadanik finkatuta dagoen «Liburu gaztea» programa, Gasteizen azaroan bertan egingo den «Abentura Liburuaren Biltzara», abian diren aretoak, eta abar.



Luis Alonso



Luis Alonso

«Hizpide» sailean denetarik aurki dezakezu oraingoan: Kiko Ruiz Huici irakaslearen artikulua bat 90eko hamarkadako haur literaturaz, Iñaki Martiarena «Mattin» irudigilearen beste artikulua bat bideratzen dituen lantegietako esperientziak bilduz, eta, azkenik, *Faristol* aldizkari katalanetik ekarrita, haur eta gazte literaturako kritikaren aldeko aldarri ozen eta deigarri bat, guk askotan defenditutako jarrera bermatzera datorena.

Erreseinen arloan, «Hitz beste» atalean, liburu askoren iruzkin kritikoak aurki daitezke, bakoitza estilo eta forma desberdinez egina, iritzi eta egiteko modu anitzen eredu.

Bederatzigarren zenbaki hau ixteko, ohiko «Hitzatzea» dator, oraingoan Patxi Zubizarretaren eskutik, Fernando Pessoa poetaren bertso go-goangarri bat oinarri hartuta.

Amaitzeko, eta urtero garai honetan egin ohi dugun bezala, iazko idazlan sarituen egileei zorionak zor dizkiegu. Euskadi Sariko Haur eta Gazte Literaturan saritutako Fernando Morillori (gure aurreko zenbakian aurki dezakezu *Izar malkoak* haren obrari buruzko erreseina), eta Espainiako Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionalean sarituriko Mariasun Landari (eskuartean duzun honetan doa *Krokodiloa ohe azpian* obraren erreseina), biei, haur literaturaren inguruan gabiltzan guztion partetik, zorionik beroenak.